

Bestelako Xedapenak

INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

1565

EBAZPENA, 2009ko otsailaren 26koa, Merkataritza, Kontsumo eta Industria Seguratasuneko sailburuordearena. Honen bidez, diru-laguntzetarako deialdia argitaratzen da, 2009ko ekitaldian «Merkagune – Hiri Merkataritza» merkataritza-lankidetzarako eskualdekako estrategiak suspertzeko.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2007ko urriaren 4ko Aginduak (2007ko urriaren 18ko EHAA) arautzen du «Merkagune – Hiri Merkataritza» merkataritza-lankidetzarako eskualdekako estrategiak suspertzeko den laguntza-programa.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2008ko uztailaren 9ko Aginduak (2008ko uztailaren 24ko EHAA) eta 2009ko otsailaren 25eko Aginduak aldatu dute agindu hori.

Laguntza horietarako baliabide ekonomikoak Euskal Autonomia Erkidegoko 2009ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorretan ezarritako aurrekontu-sailetatik hartuko dira. Abenduaren 29ko 19/2008 Legean (2008ko abenduaren 31ko EHAA, 250. zk.) ezarrita dago ekitaldi honetan izango duen erregulazioa.

Agindu horren 12. artikuluan ezarritakoari jarraiki, egoki da bertan ezarritako laguntzetarako 2009ko ekitaldiko deialdia egitea eta horretarako behar diren arauak ematea.

Ondorioz, agindu horren 12. artikuluan emandako ahalmenaz baliatuz, hau

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen xedea da Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2007ko urriaren 4ko Aginduak «Merkagune – Hiri Merkataritza» merkataritza-lankidetzarako eskualdekako estrategiak suspertzeko laguntzen programa aurrera eramateko (Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2008ko uztailaren 9ko eta 2009ko otsailaren 25eko Aginduek aldatua) ezarritako laguntzen 2009ko ekitaldirako deialdia egitea.

Xede horretarako, guztira 12.500.000,00 euro bideratuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko 2009. urteko Aurrekontu Orokorren Legean ezarritako aurrekontu-kredituan ageri denez; era honetan banaturik: 11.500.000,00 euro udalen ekintzetarako; eta

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

1565

RESOLUCIÓN de 26 de febrero de 2009, del Viceconsejero de Comercio, Consumo y Seguridad Industrial, por la que se hace pública la convocatoria de ayudas económicas destinadas a incentivar las estrategias zonales de cooperación comercial «Merkagune-Comercio Urbano» para el ejercicio 2009.

La Orden de 4 de octubre de 2007, de la Consejera de Industria, Comercio, y Turismo (BOPV de 18 de octubre de 2007), regula el programa de ayudas destinadas a incentivar las estrategias zonales de cooperación comercial «Merkagune-Comercio Urbano».

Esta Orden ha sido modificada por las Ordenes de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo de 9 de julio de 2008 (BOPV de 24 de julio de 2008), y de 25 de febrero de 2009.

Los recursos económicos destinados a la concesión de las citadas ayudas procederán de las correspondientes partidas presupuestarias establecidas en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2009, cuya regulación, para el presente ejercicio, se establece en la Ley 19/2008, de 29 de diciembre (BOPV n.º 250 de 31 de diciembre de 2008).

De conformidad a lo establecido en el artículo 12 de la citada Orden, procede realizar la convocatoria de las ayudas que en el mismo se establecen, para el ejercicio 2009, dictando a tal objeto las normas necesarias.

Por lo expuesto, en virtud de la facultad establecida en el mencionado artículo 12 de la Orden de referencia,

DISPONGO:

Artículo 1.– Objeto.

Es objeto de la presente Resolución, la convocatoria para el ejercicio 2009 de las ayudas previstas en la Orden de 4 de octubre de 2007, de la Consejera de Industria, Comercio, y Turismo, modificada por las Ordenes de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo de 9 de julio de 2008, y de 25 de febrero de 2009, destinadas a incentivar las estrategias zonales de cooperación comercial «Merkagune-Comercio Urbano».

Para este fin se destinará un total de 12.500.000,00 euros, según el correspondiente crédito presupuestario establecido al respecto en la Ley de Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco para el año 2009, y distribuidos de la siguiente manera:

1.000.000,00 euro Merkatarien Elkarteen ekintzetarako.

Zenbateko hori aldatu ahal izango da, eskatutako laguntzen guttizko kopurua kontuan izanda, eta honako baliabide hauen gorabeheran: Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren beste laguntza-egitarau batzuk aurrera eramatean agortu gabe geratu diren aurrekontu-baliabideen arabera. Aldatzekotan, aurrekontu baliabide horiek ebatzi baino lehen aldatu beharko da zenbatekoa. Merkataritza, Kontsumo eta Industria Seguritasuneko sailburuordearen ebazpenaren bidez, halako aldaketan berri zabalduko da.

2. artikulua.– Betekizunak.

Eskatzaileek Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2007ko urriaren 4ko Aginduan (2007ko urriaren 18ko EHAA), Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2008ko uztailearen 9ko Aginduak (2008ko uztailearen 24ko EHAA), eta 2009ko otsailaren 25eko Aginduak aldatua, ezarritako laguntzak jaso ahal izateko, agindu horren 5. artikuluan ezarritako betekizunak bete beharko dituzte.

3. artikulua.– Eskabideak eta epea.

1.– Eskatzaileek Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko lurralde-bulegoetan jaso ahal izango dute eskabidearen eredu bat, baita Interneteko helbide honetan ere: www.euskadi.net/comercio.

2.– Eskabideak eta gainerako agiri osagarriak Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Merkataritza Zuzendaritzari zuzendu beharko dizkiote. Aurkeztu, berriz, lurralde historiko bakoitzeko Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko lurralde-bulego egokian aurkeztu beharko dituzte eskabide eta agiri horiek, edo azaroaren 26ko 30/1992 Legeak (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak) 38.4 artikuluan zehazturiko tokietan.

3.– Eskabideak aurkezteko epea ebazpen hau argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da, eta 2009ko maiatzaren 15ean bukatuko da.

4.– Laguntza hauen programaren aginduak ezarritako ondorioetarako, deialdi honetarako EAEko merkataritza-dentsitatea 14,91 izango da.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ebazpen hau indarrean sartuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango zaio Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuari. Horre-

11.500.000,00 euros para las actuaciones de los Ayuntamientos; y 1.000.000,00 euros para las actuaciones de las Asociaciones de Comerciantes.

El importe podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Industria, Comercio y Turismo y con carácter previo a la resolución de las mismas. De la presente circunstancia se dará publicidad mediante Resolución del Viceconsejero de Comercio, Consumo y Seguridad Industrial.

Artículo 2.– Requisitos.

Los solicitantes, para poder acceder a las ayudas previstas en la Orden de de 4 de octubre de 2007, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo (BOPV de 18 de octubre de 2007), modificada por las Ordenes de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo de 9 de julio de 2008 (BOPV de 24 de julio de 2008), y de 25 de febrero de 2009 deberán reunir los requisitos establecidos en el artículo 5 de la Orden de referencia.

Artículo 3.– Solicitudes y plazo.

1.– Un modelo de solicitud será facilitado en las Oficinas Territoriales del Departamento de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco, o en la dirección de Internet: www.euskadi.net/comercio.

2.– Las solicitudes y demás documentación complementaria deberán dirigirse a la Dirección de Comercio del Departamento de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco, presentándolas en las correspondientes Oficinas Territoriales de Industria, Comercio y Turismo de cada Territorio Histórico, o en cualquiera de los lugares especificados en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

3.– El plazo de presentación de solicitudes se iniciará el día siguiente al de publicación de la presente Resolución y finalizará el 15 de mayo de 2009.

4.– A efecto de lo establecido en la Orden reguladora de este programa de ayudas, la densidad comercial de la CAPV será 14,91 para la presente convocatoria.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– La presente Resolución de convocatoria surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Segunda.– Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Consejera de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco en el

tarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko otsailaren 26a.

Merkataritza, Kontsumo eta
Industria Segurtasuneko sailburuordea,
RODRIGO GARCÍA AZURMENDI.

plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 26 de febrero de 2009.

El Viceconsejero de Comercio, Consumo
y Seguridad Industrial,
RODRIGO GARCÍA AZURMENDI.